# BARAKALDOKO ELIZATEKO LURRALDE, POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ANTOLAKUNTZA. 1614KO ORDENANTZAK

XV. mendearen hasieran Barakaldoko kontzejuaren lurralde antolamendua oso ondo zehaztuta ageri da. Gauza bera esan dezakegu demografi, ekonomi eta hiri garapenaz: biztanleria eskasa, bereziki nekazaria eta nahikoa sakabanatua. Egoera hori XIX. mendearen azken hereneraino luza dezakegu. Eta lurraldearen “lan” horren parean kokatu behar dugu haren “antolakuntza”.

Antolatzea, besteak beste, “arautzea” da. Eta beraren helburua erkidego baten oinarrizko ibilera-arauak ezartzea da, bai barneko harremanetan (ordenantzak) bai alboko erkidegoei dagokienean (foruak). Gure kasuan lehenengo helburuaz ariko gara, Elizateko herritarrek 1614ko irailaren 3an idatziz onetsi zituzten Ordenantzetan oinarriturik. Ordenantzok 1715ean berretsi ziren eta nonbait 1887ra arte egon ziren indarrean. Urte hartan, alkatea Tomas Begoña y Garai zelarik, lehenengoen oso ezberdinak ziren beste batzuk idatzi ziren, aurreko mendeetan bildutakoaren oso ezberdina zen beste problematika bati zegozkionak.

Erreferentzia bezala balio izan digun testua gaztelaniaz dago eta 1927an notarioaren aurrean mekanografiatutako kopia bat da. 1614ko irailaren 3an Erregimentu Publikoan (Justizia, Fidelak, Erregidoreak eta herritarrak) aldarrikatutako Ordenantzak ditu. Beraiek zioa adierazi dute: *“Elizatea orain arte gobernatutako Ordenantzak hain apurtuta zeuden ezen ezin irakur baitzitezkeen, eta ordenantza berriak egin beharra zuten”*. Hura 62 arauk osatuta dago eta arauok ez daude tituluen edo idatz-zatien arabera antolatuta, 1etik 64ra zenba-

# ORGANIZACIÓN TERRITORIAL, POLÍTICA Y ADMINISTRATIVA DE LA ANTEIGLESIA DE BARAKALDO. LAS ORDENANZAS DE 1614

Si ya en los inicios del s. XV la ordenación territorial del concejo barakaldés aparece muy bien definida, lo mismo podemos afirmar del desarrollo demográfico, económico y urbano: una población escasa, dedicada fundamentalmente a la agricultura y bastante dispersa. Situación que podemos prolongar hasta el último tercio del siglo XIX. Y paralela a esta “ocupación” del territorio debemos situar su “organización”.

Organizar, entre otras acepciones, significa "regularizar” y tiene por objetivo establecer las normas básicas de funcionamiento de una comunidad tanto en sus relaciones internas (ordenanzas) como en lo concerniente a las comunidades vecinas (fueros). En nuestro caso nos referiremos al primer objetivo basándonos en las Ordenanzas que los vecinos de la Anteiglesia aprobaron por escrito el 3 de Septiembre de 1614. Estas Ordenanzas fueron confirmadas en 1715 y, posiblemente estuvieron vigentes hasta 1887 en que siendo Alcalde D. Tomás Begoña y Garay se redactaron otras que en nada se parecen a estas primeras y que corresponden a otra problemática muy diferente a la recogida en siglos anteriores.

El texto que nos ha servido de referencia, íntegramente en castellano, es una copia mecanografiada en 1927 ante Notario. Contiene las Ordenanzas proclamadas en Regimiento Público (Justicia, Fieles, Regidores y vecinos) el 3 de Septiembre de 1614. Ellos mismos indican el motivo: "*por cuanto las Ordenanzas con que hasta al presente se había gobernado la Anteiglesia estaban tan rotas que no se podían ni leer, tenían necesidad de hacer ordenanzas nuevas*". Se compone de 62 normas que no vienen organizadas

kiztatuta baizik. Bi zenbaki aipatzen ez dituen jauzia dagoela gertatzen da arauak eta zenbakiak bat etortzea.

Kontuok aipatuta, goazen lehen adierazi dudan bezala ordena hertsirik ez duen testura. Horregatik, haiek arindu gura dituzten arazoez ari diren bost paragrafotan multzokatu ditugu: 1) Agintariak eta beraien betebeharrak aukeratzeko arauak, 2) Ogibide batzuetan gehiegikeriak saihesteko edo haiek hobeto betetzeko arauak, 3) Lapurreta edo erabilera txarrak prebenitzeko arauak, 4) Herri osasuna zaintzeko arauak eta 5) Erlijiozkotasunari eusteko arauak.

**1. Agintariak eta beraien betebeharrak aukeratzeko arauak** (8 ordenantza). Elizatea, hasiera batean, ondo eraentzen du ERREGIMENTU PUBLIKOak (Justizia, Udala edo Erregimentua eta nahi duten herritarrak bertaratzen dira) edo ERREGIMENTU MURRIZTUak (udala eta herritar batzuk). Ordenantzok egiteko, esate baterako, Erregimentu Publikoari deialdia “kanpaia joz” egiten zaio. Agintariak aukeratzeko, aldiz, Erregimentu Murriztuari egiten zaio deialdia. Horrek erakusten digu ezen udal kudeaketaren errealitatea Erdi Aroko antzinako leinuekin bat datozen abizen bakan batzuen eskuetan dagoela.

**1.1. Aukeratzeko era:** urtarrilaren 1ean aurreko urteko agintariak eta herritar garrantzitsu batzuk, papertxo batzuetan izen bana idatzi ostean, pegarrean sartzen dira, esaten da (1840an ume txikia izango da) ezen lehenik irteten diren hirurak lehen erregidore izendatzen direla, eta hurrengo hirurak bigarren erregidore. Aukeraketa berretsita geratzen da San Bixente elizaren atarian karguari zin egiten diotenean.

**1.2. Karguaren iraupena:** urtebetekoa. Pertsona bera berriz hautatu ahal izateko hiru urtek pasatu beharko dute, gutxienez.

**1.3. Betebeharrak:** suposatu behhar dugu ezen karguok ez zirela hasiera batean ordaintzen edota horri buruzko aipamenik ez dagoela Ordenantzetan. Hortaz, hautatuak denbora eta ondasunak zituzten pertsonak ziren. Izan ere, beraiek zituzten betebeharrak ez ziren gutxi: erregimentura edo biltzarrera joatea, herrian presentz baziren; herritarren erregistroetarako liburu bi beteta eramatea (Jaurerrian jaiotako pertsonak aipatuta zeuden bat eta hortik kanpo jaiotakoak aipatuta zeuden beste bat; Elizatearen neurriak eta balan-

por títulos o apartados sino simplemente numeradas del 1 al 64. La discrepancia viene porque hay un salto que omite dos números.

Señaladas estas cuestiones, vayamos al texto que, como he indicado con anterioridad, no tiene un orden estricto. Por ello, las hemos agrupado en cinco grandes apartados que hacen referencia a los problemas que tratan de paliar: 1) Reglas para la elección de las autoridades y sus obligaciones, 2) Reglas para evitar abusos en el ejercicio de algunos oficios o desempeñarlos mejor, 3) Reglas para prevenir robos o malos usos, 4) Reglas para preservar la salud pública y 5) Reglas para mantener la religiosidad

**1. Reglas para la elección de las Autoridades y sus obligaciones** (8 ordenanzas). La Anteiglesia, en principio, se rige bien a través del REGIMIENTO PÚBLICO (asisten la Justicia, el Ayuntamiento o Regimiento y los vecinos que lo deseen) o del REGIMIENTO RESTRINGIDO (Ayuntamiento y algunos vecinos). Para la elaboración de estas Ordenanzas, por ejemplo, se convoca “a toque de campana" a Regimiento Público. Para la elección de las autoridades, sin embargo, se convoca el Regimiento Restringido. Lo cual ya nos muestra la realidad de la gestión municipal está en manos de unos pocos apellidos que vienen a coincidir plenamente con los viejos linajes medievales. Vayamos por partes:

**1.1. Forma de elección:** se reúnen el día 1 de Enero las autoridades del año anterior con algunos vecinos importantes y tras escribir una serie de nombres en sendos papelitos se introducen en un cántaro. Sin indicar quién (en 1840 será un niño de tierna edad) se dice que los tres que primero salen son nombrados regidores primeros y los tres siguientes, regidores segundos. La elección queda confirmada cuando juran el cargo en el pórtico de la Iglesia de San Vicente.

**1.2. Duración del cargo:** un año. Para poder salir elegido de nuevo deberán pasar, al menos, tres años.

**1.3. Obligaciones:** debemos suponer que estos cargos no eran, en principio, remunerados o, al menos, nada se dice de ello en las Ordenanzas. Por tanto, los elegidos debían ser personas que dispusiesen de tiempo y bienes. Porque las obligaciones que tenían no eran pocas: asistir al regimiento o asamblea, si están presentes en el pueblo; llevar bien cumplimentados dos libros de registros vecinales: uno con las personas nacidas en el Señorío y otro con quienes no lo eran; afinar bien las medidas y balanzas de la anteiglesia de acuerdo con el afinador del Señorío y

tzak ondo egokitzea, Jaurerriko egokitzailearekin bat etorririk, tabernariek, errotariek eta okinek erabiltzen zituztenekin erkatu ahal izateko; ardoaren, sagardoaren eta gariaren prezioak finkatzea, inguruko elizateetan erabilitakoarekin bat etorririk; errege bideak ikusi, berrikusi eta konpontzea; ogiaren pisua zuzena zela eta okinek hor beren marka jartzen zutela egiaztatzea; lapurretengatiko salaketei jaramon egin eta dagokien ikerketa egitea; herritar guztiek aza, porru eta barazki ortu bana zutela egiaztatzea; eta, azkenik, hainbat agiri gordetzen ziren kutxaren bi giltzetako bat gordetzea.

**2. Ogibide batzuetan gehiegikeriak saihesteko edo haiek hobeto betetzeko arauak** (34 ordenantza). Gai honi buruzko ordenantza kopurua kontutan hartzen badugu, pentsa dezakegu ezen hori kezka nagusia dela. Eta ogibideon artetik bi nabarmentzen dira: tabernariak eta gari-saltzaileak edo asokeroak. Lehenengo erreferentzia bezala ogibideak eta beroriek aipatuta dauden ordenantzen kopurua: tabernariak (19), gari-saltzaileak (8), harakinak (2), okinak (2), ikazkinak (1), gurdi-egileak eta emakume “mundutar”rak (sic) (1). Ikus dezagun zer esaten zaigun haiei buruz, gehiegikeriarik ohikoenez eta beroriek arintzeko hartzen diren neurriez.

**2.1. Tabernariei buruz** (19 ordenantza). Edozein herritarrek ardoa, sagardoa, koipea, olioa, arrainak edo beste edozein mantenu erosi eta saldu ahal du, erregidoreek finkatutako prezioan. Neurriak, behar bezala finkatuak, pitxer erdi, pinterdi eta pinterdi erdikoak izango dira eta ezin izango dira bestelakoak izan. Ardoa, ogiak eta gainerako mantenuak izan behar dituzte erosleen kontsumorako (berriz saltzeko ez). Ogia okinei eroste badiote, kostu-prezio berean saldu beharko dute. Kanpotik itsasadarrean zehar Lutxanako Dorreraino datozen ardoak saltzeko hiru egunez itxaron beharko dute, Elizateko edo Erandioko, Deustuko, Begoñako eta Abandoko edozein herritarri erosteko aukera emateko. San Martin egunean San Bixente elizako atarian elizateko uztako ardoari prezioak Sestaon, Haranean, Abandon eta Deustun jarritako prezioen arabera jarriko zaizkio. San Martin egunetik aurrera ezin da kanpoko ardorik saldu (Rivadavia, Gaztela, Toro eta Errioxa) elizatean ekoitzitakoa kontsumitzen ez den bitartean, *“zeren eta Barakaldon ardo kopuru handia ekoizten baita”*. Zehaztutakoaren arabera, taberna

para que se pudiesen cotejar con las que utilizaban los taberneros, molineros y panaderos; fijar los precios del vino, de la sidra y del trigo de acuerdo con lo usado en las anteiglesias del entorno; ver, revisar y arreglar los caminos reales; comprobar que el peso del pan es el correcto y que los panaderos ponen en él su marca; atender las denuncias por robos y hacer la correspondiente investigación; controlar que todos los vecinos tengan una huerta de berzas, puerros y hortalizas y, por último, guardar una de las dos llaves del arca donde se guardan diversos documentos.

**2. Reglas para evitar abusos en el ejercicio de algunos oficios o desemplearlos mejor** (34 ordenanzas). Si tenemos en cuenta el número de ordenanzas relativas a este asunto podemos pensar que ésta es una preocupación central. Y de entre estos oficios, dos sobresalen extraordinariamente: los taberneros y los vendedores de trigo o asoqueros. Como primera referencia indicaremos los oficios y el número de ordenanzas que hacen referencia a cada uno de ellos: taberneros/as (19), asoqueros/as (8), carniceros (2), panaderos (2), carboneros (1), carreteros (1) y mujeres "mundanas" (sic) (1).Veamos lo que se nos dice de cada uno de ellos, los abusos más frecuentes y las medidas que se toman para paliarlos.

**2.1. Respecto a los taberneros y taberneras** (19 ordenanzas). Cualquier vecino o vecina puede comprar y vender vino, sidra, grasa, aceite, pescado o cualquier otro mantenimiento siempre que lo haga al precio marcado por los regidores. Las medidas, debidamente marcadas, serán las de media azumbre, cuartillo y medio cuartillo y no podrán ser otras. Están obligados a tener vino, pan y demás mantenimientos para el consumo de los compradores (no para revenderlo). Si el pan lo comprasen a los panaderos deberán venderlo al mismo precio de coste. Para comprar vinos que vengan de fuera por la ría hasta la Torre de Lutxana deberán esperar tres días para dar opción de compra a cualquier vecino de la Anteiglesia o de las de Erandio, Deusto, Begoña y Abando; el día de San Martín en el pórtico de la Iglesia de San Vicente se pondrán los precios al vino de la cosecha de la anteiglesia a tenor de los precios puestos en Sestao, el Valle, Abando y Deusto; desde el día de San Martín en adelante no se pueden vender vinos foráneos (Rivadavia, Castilla, Toro y Rioja) hasta que no se haya consumido el producido en la anteiglesia "*porque en Barakaldo se produce mucha cantidad de vinos*"; se determina que haya una sola taberna para los barrios de Landaburu-Zaballa, Rájeta-Ugarte y Arteagabieta-

bakarra dago Landaburu-Zabala, Rajeta-Ugarte eta Arteagabieta-Bitoritxa auzoetarako, Beste taberna bat Retuertorako, Amezagarako, Beheko Errementeria eta Labrostegi auzoetarako, beste bat Partxeta auzorako, berori errege bidea izateagatik; eta beste bat Irauregirako, Sasirako eta Goikoetxerako. Elizatean saltzen ez den ardoa kanpoan saldu ahalko da aurretik lizentziarik izanez gero. Tabernariak, ardoa jabeei erosi ostean, gehiagorik behar badute eta jabeek gehiagorik ez badute, kanpotik ekarri eta saldu ahalko dute. Debekatuta dago bi ontzi zabalik aldi berean izatea eta gainera ura, sagardoa edo bestelako ardoa botatzea. Ezin da ardorik edo beste mantenimendurik zerbitzatu gauez edo jaiegunetan meza entzun baino lehen. Sagardoari dagokionez, lehen adierazi dugu ezen salmenta-prezioa erregidoreek jarri behar dutela. Gainera, adierazi da ezen bilketaren aurretik detxemariek agertu behar dute uzta ikusi eta balioztatzeko. Era berean, “detxemari” edo “gizon balioztatzaile”ok uztaren detxema gorde behar dute.

**2.2. Gari-saltzaileei buruz** (8 ordenantza). Haien ofizioa ordenantzarik gehien eskaintzen zaizkion bigarren “ofizioa” da. Ordenantzetan erabiltzen den terminoa “asokero”ena da. “Asokero”ok garia mulateroei erosten diete eta, gero, auzotarrei eta okinei saltzen diete.Ordenantzarik garrantzitsuenetan aipatuta dagoenez, garia mulateroei bi lekukoren aurrean erosi behar dute eta erosketa-prezioa ikus dezaten. Une horretanezin da besterik sartu. Debekatuta dago berriro saltzea, gari-anega bakoitzeko ordaindutako prezioan zortzi maraiko baino gehiago kargatuz gero. Gauza bera aplikatzen da, baldin eta garia inguruko merkatuetan erosten bada, Urduñan edo Balmasedan erosi ezean. Guztiz debekatuta zegoen gari mota bi nahastu eta gero berriro saltzea. Horiek guztiek neurri batzuk izan behar zituzten (*“herri altxorraren kontu”*ra), ofizialekin konpultsatu eta behar bezala zigilatuak. Gariari dagokionez, anega-erdia, emina, lakaria eta lakari erdia aipatu dira. Sagarrei begira, adierazitakoaren arabera, kuebanoa (otarre handia) izan behar da.

**2.3. Harakinei (2) eta okinei(2) buruz.** Haien gainean erreferentzia urri bi egin behar dira. **Harakin**ei buruz aipatutakoaren arabera, harakindegi batek egon behar zuen lekurik egokienean, Jaurerriko egokitzaileekegokitu eta erkatutako pisuekin eta balantzarekin; eta haragia *“auzotarrei kanpo-*

Vitoricha, otra para Retuerto, Amézaga, Herrería de Abajo y Labrostegui; otra en el barrio de Parcheta por ser camino real; y otra para los lugares de Yrauregui, Sasia y Goicoechea; el vino que no se venda en la anteiglesia podrá venderse fuera, previa licencia; los taberneros, una vez que hayan comprado el vino a sus dueños, si necesitasen más y estos no tuvieren, podrán traerlo de fuera y venderlo; prohibido tener dos recipientes abiertos al mismo tiempo ni echar agua, ni sidra ni otro vino encima; no se puede servir vino ni otros mantenimientos por la noche ni antes de oír misa los días festivos; respecto a la sidra ya hemos indicado que el precio de venta lo deben poner los regidores; además se indica que antes de la recogida deben hacerse presentes los "diezmeros" para ver y apreciar la cosecha. Igualmente estos "diezmeros" u "hombres apreciadores" deben preocuparse de guardar el diezmo de la cosecha.

**2.2. Respecto a los vendedores y vendedoras de trigo** (8 ordenanzas). Es el segundo "oficio" al que más ordenanzas se le dedican. El término que se emplea en las Ordenanzas es el de "asoqueros-as". Estos "asoqueros" compran el trigo a los mulateros y luego lo venden a los vecinos y a los panaderos. Las más importantes hacen referencia a que deben comprar el trigo a los mulateros delante de dos testigos para que vean el precio de compra momento en el que no puede otro entrometerse; se prohíbe revenderlo cargando más de ocho maravedíes al precio pagado por cada fanega de trigo; lo mismo se aplica si el trigo se compra en los mercados circundantes excepto si se compra en Orduña o en Valmaseda; estaba terminantemente prohibido mezclar dos tipos de trigo para revenderlo posteriormente; todos ellos debían tener varias medidas (a "*cuenta del erario público*") compulsadas con las oficiales y debidamente selladas. Respecto al trigo se señalan la media fanega, la emina, el celemín y el medio celemín. Para las manzanas únicamente se indica la obligación de tener un cuébano (cesto grande).

**2.3. Respecto a los carniceros (2) y panaderos (2).** Dos escasas referencias a cada uno de ellos. Respecto a los **carniceros,** se indica que debía haber una carnicería en el lugar más adecuado, con balanza y pesas afinadas y cotejadas por el afinador del Señorío y que se debe dar carne "*antes a los vecinos que a los de fuera*". De los **panaderos** únicamente se indica que deben hacer pan con sus señales y peso correspondiente y que no se amase en días de fiesta o domingos.

*koei baino lehenago"* eman behar zitzaien. **Okin**ei buruz honakoa bakarrik adierazi da: ezen ogia beren seinaleekin eta pisuarekin egin behar zirela eta jaietan edo igandeetan ezin dela oratu.

**2.4. Ikazkinei (1), gurdi-egileei (1) eta emakume "mundutarrei" (1) buruz.** Gertaera isolatuen modura agertzen dira. **Ikazkin**en lanari buruz honakoa bakarrik adierazi da: ezen errautsak zuloetan eta haitzuloetan utzi behar zituztela, ganaduek edo urek eraman ez zitzaten. **Gurdi-egile**ek beren gurdiak edo oholak galtzadetatik kanpotik eraman behar zituzten honda ez zitezen, eta auzotarrak lasai utzi behar zituzten. Beraiek beren bideak zituzten, ondorengo udal aktetan ikusten denaren arabera oso txarto zeudenak. Azkenik, **emakume mundutarrak** (sic) direlakoen gaineko ordenantza bat ageri da. Bertan hitzez hitz adierazita dagoenez, *"elizatekoak ez direnak bertatik kanporatu behar dira eskandalua eta beste oztopo batzuk saihesteko"*.

**3. Lapurreta edo erabilera txarrak prebenitzeko arauak** (13 Ordenantza): lapurreten gaiari buruzko ordenantza multzoa nahiko garrantzitsua da. Normalean lapurtzeagatik inork lapurtzen ez duela eta, suposatu behar dugu ezen beharragatik lapurtzen dela. Ordenantzotariko batzuen bitartez neurtu ahal dira elizateko edo hurbileko udaletako auzotarren eguneroko bizitzan eragina zuten beharrizan nagusiak. Gertaerok zenbait eremutan bildu gura ditugu:

**3.1. Lurrez jabetzea.** Ordenantza batean adierazitakoaren arabera, landu gabe zeuden amankomuneko lur asko zeuden eta askok esaten zuten beraienak zirela. Arazoa konpontzeko urtebeteko epea ematen zen edozein auzotarrek hesiztatu eta oztporik gabe landu ahal izan zitzan. XIX. mendearen erdialdean, artean, lurrak eskatzea Udal Aktetan nahiko sarritan egoten den gaia da. Horrek erakusten digunez, gaia ez zen nahiko konponduta geratua. Beste ordenantza batean Saratxoko auzotarrak aipatu dira. Bertan adierazitakoaren arabera, beroriek ezin zuten labore-lurrik ez lugorririk itxi. Kasu horretan, zegokien isuna ezartzeaz gain, edozein barakaldoarrek hesiak ken zitzakeen.

**3.2. Ganaduarentzako zuhainez jabetzea: bazkak, belarra.** Ohitura honek, belarrari dagokionean, 38 zenbakiko ordenantzaren arabera, Muskizko morroi eta neskameak ukiturik ditu: beroriek ezin zuten hori egiten jarraitu. **Bazken** gaia zailagoa da eta askoz babestuago dago. Horrek era-

**2.4. Respecto a los carboneros (1), carreteros (1) y mujeres "mundanas" (1).** Aparecen como hechos aislados. Respecto al trabajo de los **carboneros** únicamente se indica que dejen las cenizas en agujeros y cuevas para que no se los lleven los ganados ni el agua. A los **carreteros** se les obligaba a transitar con sus carros o tablas por fuera de las calzadas para que no se estropeen y dejen tranquilos a los vecinos. Para ellos tenían sus propios caminos que, por lo que se ve en Actas posteriores municipales, estaban en bastante mal estado. Por último aparece una ordenanza relativa a las llamadas **mujeres mundanas** (sic) en la que se indica textualmente que aquellas "*que no sean vecinas y naturales de la anteiglesia sean echadas de ella para evitar escándalo y otros inconvenientes*".

**3. Reglas para prevenir robos o malos usos** (13 Ordenanzas): el conjunto de ordenanzas que hacen referencia al tema de los robos es bastante importante. Partiendo del hecho de que, normalmente, nadie roba por robar debemos suponer que si se hace es, mas bien, por necesidad. A través, pues, de algunas de estas ordenanzas podemos calibrar las principales necesidades que incidían en la vida diaria de los vecinos de la anteiglesia o de concejos próximos. Agrupamos estos hechos en unos cuantos ámbitos:

**3.1. Apropiación de tierras.** Por lo indicado en una de las ordenanzas existían muchas tierras del común que estaban sin labrar y muchos dicen que son suyas. Para solucionar el problema se da un año para que cualquier vecino las pueda cercar y labrar sin impedimento alguno. Todavía a mediados del siglo XIX la solicitud de tierras para labrar es un tema que con bastante frecuencia se encuentra en las Actas Municipales, lo cual nos muestra que el asunto no había quedado suficientemente solucionado. En otra ordenanza se hace referencia a los vecinos de Saracho a quienes se prohíbe cerrar tierras de labrantío ni baldías. En este caso, además de la multa correspondiente, se permite a cualquier vecino de Barakaldo quitar las cercas.

**3.2. Apropiación de forrajes para el ganado: pastos, hierba.** Costumbre que en lo referente a la **hierba,** según la ordenanza 38°, afecta a los mozos y mozas de Somorrostro a quienes se prohíbe tajantemente seguir con la práctica. El tema de los **pastos** es más complejo y está mucho más protegido, lo cual nos muestra la cierta importancia que tenía la ganadería: de momento se prohíbe a los vecinos de Güeñes y Somorrostro echar ganado a los montes de la anteiglesia bajo la amenaza de una buena multa y la

kusten duenez, garrantzitsua zen abeltzaintza: Gueneskoek eta Muskizkoek ezin zuten elizateko mendietara ganadurik eraman; bestela, isuna ezartzen zizaien eta ganaduak kendu. Horrekin babestu gura zen norberaren ganaduarentzat inguruko mendien zonarik gorena. Are gehiago, mendiei eta mendilerroei su eman ahal zitzaien, beharrezko izanez gero, bazka gehiago lortzeko.

**3.3. Hainbat materialez jabetzea: ihiak eta egurra zehazki.** Antsioko **ihitza**ri buruz adierazi da Ordenantza batean ezen inork ezin duela ihirik moztu ekainaren San Juan eguna pasatzen ez den bitartean; bestela, dagokion isuna ezarriko zaio eta, gainera, zama galduko du. **Egurra mozte**aren gaiak garrantzi handiko beste konnotazio batzuk ditu, beste ezein lekutan aipatuta ez dauden beste jarduera batzuk erakusten dizkigutenak. 46 eta 47 zenbakidun Ordenantzetan aipatuta dago hori. Hasiera batean, auzotarrek borto-mendietako egurra (gurpitzak) moztu ahal zuten beren etxeetarako, itxituretarako, karegileetara eta beharrezko gaietarako. Hala ere, ezin zuten hura moztu Bilbon edo Portugaleten moztu berritan edo *"totxo, palanka eta erramona"* bihurtuta saltzeko. Isunak ez zuen egurra mozten zuena bakarrik ukitzen, baita hura garraiatzen zuena ere. Bitxiena debeku horren zergatia da: *"mendiek galera asko jasaten dituztelako eta mendietako egurra errentan eman zaielako elizateko errementerien jabeei"*. Are gehiago, 37. Ordenantzak adierazi duenez, abenduan, urtarrilean eta otsailean arbolak landatu behar dituzte Erregearen aginduak betetzeko. Hortaz, bi jarduera babestu behar dira: karobietakoa eta errementerietakoa, jakina den bezala ibiltzeko energi iturri hori behar zutenak.

**3.4. Elikagaiez jabetzea.** Honakook aipatu dira: **sagarrak** (ez lapurtzeko ezin dira Elizateko labeetan erre), mahatsak (Bilbon debekatuta dago mahatsa saltzea bai beren mahastietatik lortzen dutenentzat bai lapurtzen dutenentzat), gaztainak (lapur ez daitezen debekatuta dago besteren gaztainondoen azpitik gain edo pertikekin joatea jabeek hori egiten ez duten bitartean), pikuak, barazkiak, sagarrak, ahariak, antxumeak, oiloak, txerriak eta beste gauza batzuk. Bertan aipatuta dagoenaren arabera, gauza horiek guztiak gauez eta egunez lapurtu ohi dituzte morroi eta neskameek, eta hori konpontzeko bi bide iradoki dira. Alde batetik, erregidore fidelek salaketei jaramon egin ahal diete, dagozkiem ikerketak egin ditza-

apropiación de los ganados. Con ello se intenta proteger la zona más alta de los montes circundantes para el ganado propio. Más aún, se permite dar fuego a los montes y sierras, cuando fuese necesario, para obtener más pastos.

**3.3. Apropiación de materiales varios: en concreto juncos y leña.** Relativo a la **junquera** de Ansio se indica en una de las Ordenanzas que nadie puede cortar junco hasta que no pase el día de San Juan de Junio. Además de la multa correspondiente perderá la carga. El tema de la **tala de leña** tiene otras connotaciones de suma importancia y que nos muestran otras actividades no citadas en ningún otro lugar. Las Ordenanzas 46 y 47 nos hablan de ello. En principio se permite cortar leña de los montes bortales (madroños) a los vecinos para sus casas, cierres, caleros y artículos necesarios. Sin embargo, se prohíbe su tala para venderla en Bilbao o Portugalete bien recién cortada o bien trasformada en "*palanquiellas, palancas y ramonas*". La multa no sólo afecta al cortador de la madera sino incluso al batelero que la transporte. Lo más curioso es la razón de tal prohibición: "*porque pierden mucho los montes y su madera está arrendada a los dueños de las herrerías de la anteiglesia*". Más aún, la Ordenanza 37 indica que los meses de Diciembre, Enero y Febrero se deben dedicar a plantar árboles cumpliendo las órdenes del Rey. Se trata de proteger, por tanto, dos actividades: los caleros y las herrerías que, como bien es sabido, precisaban de esta fuente de energía para su funcionamiento

**3.4. Apropiación de alimentos.** Se señalan: **manzanas** (para que no se roben se prohíbe que se asen en los hornos de la Anteiglesia), **uvas** (se prohíbe vender uva en Bilbao tanto de quienes la obtengan de su viña como de quienes la roben), **castañas** (para que no se roben se prohíbe ir por debajo de los castaños ajenos con picachos ni pértigas hasta que los dueños no lo hayan hecho). **Higos, hortalizas, manzanas, carneros, cabritos, gallinas, lechones y otras cosas:** todo esto, se señala de golpe, que suelen robar los mozos y mozas de noche y de día, y para solucionarlo se sugieren dos remedios. Uno es que los fieles regidores atiendan las denuncias, hagan las correspondientes investigaciones y lo pongan en conocimiento del Corregidor. Y, lo que es más curioso, y lo cito textualmente "*que todos los vecinos deben tener para su consumo una huerta de berzas, puerros y otras hortalizas*".

**4. Reglas para preservar la Salud Pública** (3 Ordenanzas): referencias a dos aspectos que hemos

kete eta emaitzak korregidoreari jakinarazi ahal dizkiote. Beste bidea bitxia da eta hitzez hitz aipatuko dut: *“herritar guztiek aza, porru eta beste barazki batzuen ortu bana izan behar dute”*.

**4. Herri Osasuna zaintzeko arauak** (3 Ordenantza): epigrafe honen pean sartu gura izan ditugun bi alderdiren aipu. Hirigunerik ez egotea, baserriaren sakabanaketa eta giza jarduerak ondo islatuta geratu dira. **Otsoak** inguruetan egotea kezkagarria da (uxaldietara joatea derrigorrezkoa da eta etxeetan otso edo otsotxo bizidunak edo hilak izatea debekatuta dago), eta **ganadu**en gaitz zehatz bat. Gaitz hori, dirudienez, arriskutsua da gainerako animalientzat: *“Punson gaitzak jota hiltzen diren abereak berehala erre eta ehortziko dira”.*

**5. Erlijiozkotasunari eusteko arauak** (3 Ordenantza): horrek ez du ordenantzetan leku handiegirik betetzen baina, hala ere, mentalitatea eta arazoak adierazten ditu. Izan ere, garrantzi handia zeukan erlijio-praktikak garai haietan, norberaren eta taldearekin Jainkoarekiko harremana adierazteko bide bezala ezezik, eguneroko bizitza garatzen zen gizarte marko bezala ere. Elizate terminoak ez du bilgune bat bakarrik adierazten, baita mito-elijiozko sinbologia osoa ere: Jendeak bere bileretarako leku baliagarria betetzen zuen, erlijio egintza edo ekitaldiren bat egin ostean gainera; hau da, erabakiak hartu behar zituztenean, aterpe fisikoa aurkitu eta, gainera, Jainkoaren babesa bilatzen zuten. Ordenatzetan adierazita dagoenez, agintariek San Bixente elizako atarian (kanposantuan) hartzen zuten kargua, eliza horretako gurutze nagusia joz.

Erreferentzia horrezaz gain, hiru dira gaiaz aritu diren Ordenantzak, oso alderdi esanguratsuez aritu direnak: meza, prozesioak eta jaietako lana. Igande eta jaiegunero **meza entzun** behar zuten auzotar guztiek, eta, gainera, hamalau urtetik gorako beren seme-alabak eta morroi nagusiak eraman behar zituzten mezatara. Etxe bakoitzak **prozesioetara** hamabi urtetik gorako bat bidali behar dute. Suposatzekoa denez, herriko jaietako, aste santuko ermitetako kofradien baitako eta abarretako prozesioez ari gara. Azpimarratu behar denez, prozesioetara joan beharrak ez zituen pertsonak ukitzen (mezatara joateak, ordea, bai), etxeak edo sutzarrak baino. Azken betebeharra lan zehatz baten gainekoa da; izan ere, honako hau bakarrik aipatu da: *“Igande edo jaiegunetan ezein piztiari txalmarik ez botatzea edo kargatzea”*.

querido englobar bajo este epígrafe. La inexistencia de un núcleo urbano, la dispersión del caserío y las actividades humanas quedan, no obstante, bien reflejadas. Preocupa la existencia de **lobos** en los alrededores (se obliga a asistir a las batidas y se prohíbe tener lobos o lobillos, vivos o muertos, en las casas) y determinada enfermedad de los **ganados** que, por lo visto, debía ser peligrosa para el resto de los animales: "*los ganados que mueran de la enfermedad de Punson sean quemados y enterrados inmediatamente*".

**5. Reglas para mantener la Religiosidad** (3 Ordenanzas): no ocupa demasiado espacio en las ordenanzas pero no por ello deja de ser significativo de la mentalidad y de los problemas. Sería absurdo negar la importancia que la práctica religiosa desempeñaba en aquellos tiempos no sólo como expresión de la relación personal y grupal con Dios sino como marco social en el que se desarrollaba la vida diaria. El término anteiglesia no indica únicamente un espacio de reunión sino toda una simbología mítico-religiosa: las gentes no sólo ocupaban un espacio útil para sus reuniones sino que lo hacían después de haber celebrado algún acto religioso; es decir que, cuando necesitaban tomar decisiones, además de encontrar cobijo físico buscaban el amparo de Dios. Las mismas ordenanzas nos indican que la toma de posesión de las autoridades se hace en el (cementerio) pórtico de la Iglesia de San Vicente tocando la cruz mayor de la dicha Iglesia.

Además de esta referencia tres son las Ordenanzas que hablan del tema y lo hacen en aspectos sumamente significativos: la misa, las procesiones y el trabajo festivo. La obligación de **oír misa** todos los Domingos y festivos afecta a todos los vecinos, que deben no sólo asistir personalmente sino también enviar a sus hijos y criados mayores de catorce años. La misma obligación tiene cada casa de enviar para las **procesiones** a un mayor de doce años. Cabe suponer que se refiere a las procesiones de las fiestas patronales, semana santa, cofradías de las diversas ermitas... Resaltar que la obligación de asistir a las procesiones atañe no a las personas (como el ir a misa) sino a las casas u fogueras. La última de las obligaciones se refiere a **determinado trabajo** porque no se citan otros sino el de “*cargar o echar albarda a ninguna bestia en Domingo o festivo*".

Señalábamos en algún momento anterior que nuestro punto de partida era considerar esta reglamentación como una forma práctica de salir al paso

Aurretik adierazi dugunez, gure abiaburua arauketa hau elizatean ohikoak diren gehiegikeriek ez kezkatzeko era praktikotzat hartzea da. Ikusi duguna ez da gehiegikeria horiei konponbidea ematen saiatzea besterik. Hala ere, legegileek nahi ona jartzeaz gain, ia Ordenantza guztiek zigorrak ekartzen dituzte. Zigorrak “diruzkoak”, “gauzazkoak” eta “bestelakoak” dira.

**1. Diruzkoak**: isunak normalean 204, 408 edo 612 maraikokoak dira, beste kopuru batzuk dauden arren. XVII. mendean langilearen batezbesteko soldata 162 bat maraikokoa zen (1972ko 2 bat pezetaren baliokidea). Horrek esan gura du ezen isunik ohikoena (408) bi eguneko soldata baino handitxoagoa zen. Zehazkiago, honakook aipatu dira: **2 dukat** (etxean otso edo otsotxo bizidun edo hila duenarentzat), **erreal 1** (landatu behar dituen arbolak landatzen ez dituenarentzat), **6 erreal** (otsoak uxatzera joan edo morroirik bidaltzen ez duenarentzat), **110 maraiko, 204 maraiko** (14 Ordenantza) **408 maraiko** (20 Ordenantza), **612 maraiko** (inguruko merkatuetatik ekarritako gariari onartutakoa baino prezio handiagoa aplikatzeagatik, benetako bideen egoera berriro ikusi ez eta konpontzeko neurri egokiak hartzen ez dituzten erregidoreentzat, ogia pisu egokiarekin eta markarekin egiten ez duten okinentzat, lapurretengatiko salaketei jaramon egiten ez dien erregidorearentzat, Punson gaitzak jota hildako animaliak ehorzten ez dituztenentzat, produktuak erregidoreek finkatutakoaren gainetik saltzen ez dituztenentzat, Elizatekoak ez diren eta bertan dauden emakume mundutarrentzat) eta, azkenik, 1.000 maraiko (erosleak egonik elizatetik hurbil ardoa saltzeagatik, auzotar guztien aza, porru eta beste barazki batzuen ortu bana dutenik egiaztatzen ez duen erregidorearentzat; Bilbon edo Portugaleten egurra moztu edo bertan saltzeko garraiatzea, lurrak hesiztatzen dituzten Saratxoko auzotarrentzat).

**2. Gauzazkoak**: zigorrak jarriko dira honakook gertatuz gero: ardoak galtzea eta enkantean eskaintzea, moztutako egurra, ekaineko San Juan baino lehen Antsion moztutako ihien zama, jarri diren hesiak kentzea, ganadua gabe elizateko mendietara botatzeagatik geratzea (Guenes eta Muskiz), pisu egokirik edo dagokion seinalerik gabe egiten den ogia galtzea.

**3. Beste batzuk**: ofizioa burutzeaz (ardoak nahastea, ura edo sagardoa ardoari botatzea) gabetzea, mendiari edo mendilerroei su emateagatik

de los abusos frecuentes en la anteiglesia. Lo que hemos visto no es otra cosa que intentar dar solución a dichos abusos. Sin embargo, los legisladores no se quedaron con formular buenos deseos. Prácticamente todas las Ordenanzas vienen acompañadas de las correspondientes sanciones. Por eso voy a detenerme brevemente en este punto. Las sanciones podemos agruparlas en "pecuniarias", "en especie" y "otros".

**1. Pecuniarias**: las multas normalmente son de 204, 408 ó 612 maravedíes, aunque existen algunas otras cantidades. En el siglo XVII (equivalía a unas 2 pesetas de 1972) un sueldo medio de un trabajador era de unos 162 maravedíes. Lo cual quiere decir que la más corriente de las multas (408) equivalía a algo más del jornal de dos días. Más en concreto se señalan: **2 ducados** (quien tenga en casa lobo o lobillo, vivo o muerto), **1 real** (quien no plante los árboles que debe), **6 reales** (quien no asistiese a la batida de lobos o mandase un criado), **110 maravedíes, 204 maravedíes** (14 Ordenanzas) **408 maravedíes** (20 Ordenanzas), **612 maravedíes** (aplicar un precio superior al permitido al trigo traído de los mercados circundantes, para los Regidores que no revisen la situación de los caminos reales y no tomen las medidas oportunas para su reparación, para los panaderos que no hagan el pan con el peso adecuado y sin su marca, para el Regidor si no atiende las denuncias por robos, para quienes no entierren los animales muertos de Punson, para quienes vendan productos por encima de lo marcado por los regidores, para las mujeres mundanas que no siendo de la Anteiglesia permanezcan en ella) y, por último, **1.000 maravedíes** (por vender el vino fuera de la anteiglesia habiendo compradores, para el Regidor que no comprobase que todos los vecinos tengan una huerta de berzas, puerros y otras hortalizas, por cortar leña o transportarla para venderla en Bilbao o Portugalete, para los vecinos de Saracho que cerquen tierras).

**2. En especie:** las sanciones se refieren a perder los vinos y subastarlos, la leña cortada, la carga de juncos cortados en Ansio antes de San Juan de Junio, quitar las cercas que ha colocado, quedarse (Güeñes y Somorrostro) sin ganado por echarlo a los montes de la anteiglesia, perder el pan que se haga sin el peso oportuno o sin las señales correspondientes.

**3. Otros:** privarle del ejercicio del oficio (mezclar vinos, echar agua o sidra al vino), sancionarle a tenor del Fuero por dar fuego al monte o sierras excepto si es para lograr pastos, pagar los daños por el contagio de ganado enfermo de Punson.

Foruaren arabera zigortzea, bazkak lortzeko ez bada, Punson gaitzak jota gaixotutako kutxadurak egindako kalteak ordaintzea.

Zer egiten zen isunen zenbatekoarekin? Normalean, kopurua hiru zatitan zatitzen zen: bideak konpontzelp nat, salatzailearentzako beste bat eta justiziarentzako beste bat. Horregatik, kopururik ohioenak 204, 408 eta 612 maraiko dira. Kasu batean adierazita dago ezen bi herenak bideak konpontzekoak izango direla eta herena esku hartzen duen justiziarentzako herena izango dela. Beste kasu batean, bideak konpontzeko aplikatzen da isun osoa (zenbat-eta 10.000 maraiko), erregidoreak hiritarrek orok ortua dutenik ez ez egiaztatzetik datorrena. Hiru kasutan (horietan guztietan agertzen da mezatara eta prozesioetara joatea edo jaiegunetan lan egitea) isun osoa izan da San Bixente elizako obrarako. LABURBILDUTA, bideak konpontzea, salatzailea, justizia eta, batzuetan, San Bixente eliza izaten dira Ordenantzetan aipatuta dauden isunen hartzaileak.

Hasieran esan dut ezen “lurraldea bete” ostean, haren edukitzaileak, zuzenean edo beren eskuordeen bitartez, elkarrekin bizitzeko arau batzuk ezartzen joan ziren (dei bekie foruak edo ordenantzak), nolabait lurraldea “antolatzeko” balio izan zigutenak. Bi bat mendetan seguraski indarrean egondako 1614ko Ordenantzak aztertu ostean, ondorio gisa puntu batzuk eskaini gura dizkizuet bukatzeko.

1. Bilbo eta Portugaleteko uriak elkarretarik hurbil daudelako abiapuntua kontutan hartuta (hirigutunetara bildutako pribilegioekin), elizatearen garapenean eragin handia izan dute bion botereak eta interesek. Antzeko bitarteko guneak sortzeko saio guztiak azkar zapuztu dira.

2. Horren ondorioz, landa izaerako gizartea osatuz joan da, neurri batean aipatutako uriak hornitzeko arazoak arindu beharraren pekoa.

3. Horregatik, lurraldea antolatzeko jarraitutako arauak egoera horretatik datoz eta, laburbilduta, honakook dira: Gaztelako nobleziaren interes ahaltsuen eragin sakona, lehenik Aialatarrenena eta, gero, Fernandez de Velascotarrenena; leinu sortzaileen edo berauen ondorengoen aldetik (Landaburu, Zabala, Tellitu, Eskauriza, Beurco, Retuerto, Larrea, Salzedo, Aranguren...) tokiko botere-mekanismoak kontrolatzea; aurrekoek fidelen artetik etengabe aukeratutako “erregidore fidel”ek

¿Qué se hacia con el importe de las multas? Normalmente, la cantidad se dividía en tres partes: una para reparar los caminos, otra para el denunciante y otra para el justicia. Por ello las cifras más frecuentes son 204, 408 y 612 maravedíes. En un caso se indica que los dos tercios irán a parar al arreglo de caminos y un tercio para el justicia que interviniese. En otro caso se aplica la totalidad de la multa (nada menos que 10.000 maravedíes) derivada de no cumplir un regidor con la obligación de procurar que cada vecino tenga huerta... para reparar los caminos. En tres casos (todos ellos relativos al cumplimiento de asistir a misa, procesiones o trabajar en festivo) la multa va íntegra para la obra de la iglesia de San Vicente. En RESUMEN: el arreglo de caminos, el denunciante, el justicia y, en algunos casos, la iglesia de San Vicente son los destinatarios de las multas a que hacen referencia las Ordenanzas.

Comenzaba mi intervención señalando que tras la "ocupación del territorio" sus poseedores, bien directamente o a través de sus delegados, fueron estableciendo unas normas de convivencia (llámense fueros u ordenanzas) que de alguna manera sirvieron para "organizar” el territorio. Tras el análisis de las Ordenanzas de 1614, que permanecen vigentes seguramente unos dos siglos, les ofrezco, para finalizar, una serie de puntos a modo de conclusión.

1. Partiendo del hecho de la proximidad de las villas de Bilbao y Portugalete (con privilegios recogidos en sus cartas puebla), el desarrollo de la anteiglesia viene muy mediatizado por el poderío e intereses de ambas. Todo intento de crear espacios intermedios similares se verá rápidamente frustrado.

2. Como consecuencia de ello se irá conformando una sociedad de índole rural, y en cierta medida, supeditada a paliar los problemas de abastecimiento de las citadas villas.

3. Por ello, la organización del territorio seguirá unas pautas derivadas de dicha situación que podemos resumir en las siguientes: influjo profundo de los poderosos intereses de la nobleza castellana, primero los Ayala y luego los Fernández de Velasco. Control de los mecanismos de poder locales por parte de los linajes "fundadores" o de sus descendientes (Landaburu, Zaballa, Tellitu, Escauriza, Beurco, Retuerto, Larrea, Salcedo, Aranguren...). Una organización municipal controlada férreamente por los "fieles regidores" elegidos permanentemente por los anteriores y entre fieles suyos. Una reglamentación interna que nos muestra una sociedad eminentemente rural, con

hertsiki kontrolatutako udal antolakuntza; eta autohornikuntza-arazoak dituen eta erlijiosoa den eta oso hierarkizatuta dagoen landako gizartea erakusten digun barne-arauketa.

4. Azkenik, adierazi behar da ezen mekanismo eta errealitate horiek guztiak bat-batean behera etorri direla XIX. mendearen azken herenaldean. Izan ere, orduan hasi zen burdingaia lar ustiatzen, eta, horrekin batera, esportazioa, trenbideak, fabrika-ezarpena, inmigrazioa... Errealitate berri hori ukitu gabe heldu da arestira arte. Orduan bakarrik jasan du elizateak horren aldaketa sakona non orrialdeotan adierazitako guztia historiaren ondare esklusiboa izango den.

## Epilogo gisa

Ibaizabal, Kadagua Gaztainaga-Galindoko uren inguruko gune bat daukagu, Trianoko Mendien baitakoa.Autrigoi jatorria duen lurralde honen gainean beren aztarnak utzi dituzte zeltek eta erromatarrek, tenente nafarrek eta Gaztelako feudalek. Gizarte hau San Bixenteren eta Santa Agedaren debozioaren zalea da eta ohituta dago erromesak Donejakurako bidean pasatzen ikusten Desertuaren Komentuko Karmeldar isiltasunean eta Burtzenako Mesedetakoen diru-bilketako eskuan. Bertan dagoen ekonomia nekazaritzakoa eta olakoa da, Gaztelako jaun boteretsuen eta tokiko leinuen interesek beren dorretxeetatik kontrolatua.

XIX. mendearen bukaerako industri prozesuetara heldu gabe ere, kontzejuaren gunea osatzen eta barakaldoarren izaera moldatzen lagundu duten eragin eta gertakari ugariak ikusi ahal izan ditugu.

Elizate hau, sorreratik, harrerako, tolerantziako, elkarbizitzako eta abarretako lurraldea da. Bide horretan jarraitzea da historiak egun barakaldoarroi agintzen diguna.

***Mitxel Olabuenaga***
*Historiako doktorea*
*eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea*

problemas de autoabastecimiento, religiosa y muy jerarquizada.

4. Por último, indicar que todos estos mecanismos y realidades se vendrán abajo de forma bastante repentina cuando en el último tercio del siglo XIX se inicie la explotación masiva del mineral de hierro y, con ello, la exportación, los ferrocarriles, la implantación de fábricas, la inmigración...; estamos ante una nueva realidad que llegará intacta hasta tiempos bien recientes. Sólo entonces la anteiglesia sufrirá una trasformación tan profunda que todo lo indicado en estas páginas pasará a ser patrimonio exclusivo de la historia.

## A modo de epílogo

Un espacio bordeado por las aguas del Nervión, Cadagua y Castaños-Galindo, acunado por los Montes de Triano. Un territorio de origen autrigón sobre el que van dejando sus huellas celtas y romanos, tenentes navarros y feudales castellanos. Una sociedad adicta a la devoción de San Vicente y Santa Águeda, acostumbrada al paso de peregrinos camino de Santiago, al silencio Carmelitano del Convento del Desierto y a la mano recaudadora de los Mercedarios de Burceña. Una economía agraria y ferrona controlada, desde sus casas-torre, por los intereses de los poderosos señores castellanos y los linajes del lugar...

No hay que llegar a los procesos industriales de finales del s. XIX para observar las múltiples incidencias que han ayudado a conformar el espacio del concejo y a modelar la forma de ser del barakaldés y de la barakaldesa.

Esta anteiglesia ha sido, desde sus orígenes, un territorio de acogida, de tolerancia, de convivencia... Continuar con esta trayectoria es lo que a nosotros, hombres y mujeres de Barakaldo, nos encomienda hoy la historia.

***Mitxel Olabuenaga***
*Doctor en Historia*
*y profesor de Educación Secundaria*